

ANIZTASUN EGUNA LESAKAN 2026KO MAIATZAREN 31

Duela 20 urte, Uruguaitik etortzerakoan, ez genuen pentsatu izanen hemen egonen ginela Bortziriako aniztasuna eta elkarbizitza ospatzen, baita aldarrikatzen ere.

Bortziritara kanpotik etorri den orok badu bere historia. Hizkuntza bat ikastea eta leku berri batean tokia aurkitzea erronka bat da.

Batez ere herri txiki batean, non ezezaguna denak erresistentzia sor dezakeen, eta kanpotarra zarela behin eta berriz gogorarazten dizutenean. Integratzen zarenean ere, galdera bat agertzen da: nongoa zara? Jatorrizko herritik urrun eta hemen oraindik ez zara erabat bertakoa. Bi munduren artean zaude. Batzuetan bietakoa, batzuetan inongoa. Baina inguruak laguntzen badu, bidea errazagoa da.

Horregatik, Bortziritara bizitzera heldu diren herritarrentzat harrera duina eta aukera berdintasuna nahi ditugu. Tresna gehiago behar ditugu etorri berriei harrera egiteko zein inklusiorako. Herritar guztientzako eskubide guztiak bermatuko dituen marko bat eskatzen dugu.

Horrekin batera, arrazakeriaren aurkako jarrera irmoa adierazi nahi dugu. Arrazakeria ez da gertaera isolatu bat. Egiturazko arazo bat da, elkarbizitza kaltetu, eskubideak mugatu eta diskriminazioa eragiten dituen.

Bortziriako tokiko entitate, eragile eta herritarrei dei egin nahi diegu konpromisoa har dezaten bizikidetza bultzatu, aurreiritziak zalantzan paratu eta elkarrekiko errespetua sustatzeko. Pertsona guziek gizarte bizitzan parte hartzeko baldintza errealak sorrarazi behar ditugu, abiapuntu desberdinak daudela kontuan hartuta.

Euskara topagunerako tresnatzat dugu eta elkarbizitzaren erdigunean paratu nahi dugu. Euskara guzior eskura.

Bereizkeriaren aurkako borroka zeregin kolektiboa da, konpromisoa, hausnarketa eta eguneroko ekintza eskatzen dituen. Bortziritarrak gara, aranaztarrak, beratarrak, etxalartarrak, igantziarrak eta lesakarrak. Gora hizkuntza eta kultura aniztasuna eta gora euskara!

Bortziriako Hizkuntza eta Kultura Aniztasun Taldea

JORNADA DE LA DIVERSIDAD EN LESAKA 31 DE MAYO DE 2026

El pasado 21 de mayo se celebró el *Día Internacional de la Diversidad Cultural*, y hoy nos hemos reunido en Lesaka para celebrar la diversidad y la convivencia de Bortziriak. Estamos aquí por una sociedad justa, inclusiva y no discriminatoria. Por lo tanto, para celebrar y reivindicar.

Queremos una acogida digna e igualdad de oportunidades para las personas que han/hemos venido a vivir a Bortziriak. Si bien el proceso de regularización iniciado hace poco abrirá la puerta a los derechos de miles de personas, habrá que ver qué ocurre cuando llegue el momento de renovar los permisos. Necesitamos más herramientas tanto para la acogida como para la inclusión de personas recién llegadas. Exigimos un marco que garantice todos los derechos para toda la ciudadanía.

Queremos poner en valor la diversidad lingüística y cultural de la ciudadanía de Bortziriak, la cual enriquece nuestra comunidad. Al mismo tiempo, queremos expresar nuestra firme oposición al racismo, que no es un hecho aislado, sino un problema estructural que afecta a la convivencia, limita derechos y genera discriminación. Ante esto, las instituciones públicas deben actuar con decisión, más allá de las palabras y las declaraciones.

Queremos hacer un llamamiento a las entidades locales, agentes y ciudadanía de Bortziriak para que se comprometan a impulsar la convivencia, a cuestionar prejuicios y a promover el respeto mutuo, cada cual en su respectivo ámbito de responsabilidad. Debemos crear las condiciones reales para que todas las personas participen en la vida social, partiendo de la base de que existen diferentes puntos de partida. Consideramos el euskera como un lugar de encuentro y queremos situarlo en el centro de la convivencia. El euskera al alcance de toda la ciudadanía.

La lucha contra la discriminación es una tarea colectiva que requiere compromiso, reflexión y acción cotidiana. Hoy queremos celebrar la diversidad lingüística y cultural de Bortziriak, y que conformamos una comunidad de trayectorias y colores diversos. Somos de Bortziriak, de Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi y de Lesaka. ¡Viva la diversidad lingüística y cultural! Gora euskara!

Grupo de Diversidad Lingüística y Cultural de Bortziriak